ZTF-FCT
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# FISIKA KUANTIKA

## 1 Gaia

---

### De Broglie-ren postulatua

**1.** Mikroskopio batean, bereizmen ahalmena mugatzen duena erabilitako uhin-luzera da, hau da, bereiztu daitekeen nabardurarik txikienak $\lambda$ neurria du. Demagun, atomoaren barruan *ikusi* egin nahi dugula. Atomoaren neurria 1 Å-ekoa denez, behar dugun bereizmen ahalmena 0.1 Å-ekoa izan behar da, gutxienez.

- Mikroskopio elektronikoa erabiliz gero, zein izan behar da elektroien energiarik txikiena?
- Mikroskopio arrunta (fotoiak erabiltzen dituena) erabiliz gero, zein izan behar da fotoien energiarik txikiena?